

GIZARTE ANTROPOLOGIAKO GRADUA PRACTICUMeko PROGRAMA



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte Antropologiako Practicumeko koordinatzailea:

Miren Urquijo

Tutoreak:

Iñaki Arrieta

Jone Miren Hernández

Pio Perez

María Ruiz

Luis Miguel Uhart

Miren Urquijo

GIZARTE ANTROPOLOGIAKO PRACTICUMeko PROGRAMA

HEFA- UPV/EHU

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Metodologia
 - a. A Fasea
 - ✓ Eginkizunak: kronograma
 - ✓ Jarduerak egiteko gida
 - b. B Fasea
3. Ebaluazioa
 - a. Fakultateko tutorearen ebaluazioa
 - b. Praktiketako zentroko instrutorearen ebaluazioa

AURRETIKO GOGOETAK

- *Ikasle guztiek **Eguneko** batean jaso behar dituzte Practicumeko faseetan planteaturiko jarduerak.*
- *Practicumeko **fase guztietara joan behar da** eta ez egoteak kontuan hartuko dira bukaerako ebaluaketan.*

1. SARRERA

Practicuma funtsezko gaia da ikasketa planean. Haren bidez jarduera profesionalera hurbilduko da ikaslea, Antropologia eta gizarte errealitatea ikusiz, behatuz, aztertuz eta etorkizun hurbilean bere lanbidea izango denaren inguruan gogoeta eginez.

Gizarte Antropologiako Graduakoa laugarren ikasturteko lehen lauhilekoan egingo da Practicum hau eta 18 ECTS kreditu ditu.

2. METODOLOGIA

- a. A FASEA: (ECTS kreditu 1 = 20 ordu aurrez aurrekoak, eta 5 bestelakoak).

Fakultatean egingo da, honako data hauekin: 2020ko irailak 09, irailak 10, urriak 5, azaroak 2, azaroak 30 eta 2021ko urtarrilak 25. Honen helburua da aurreko moduluetan zehar garatutako gaitasunak Practicumekin loturiko gaitasunekin lotzea, horren inguruan gogoetak eginez, tresnak garatuz, eta zentroaren eta eskarmentudun ikasleen aurkezpenen bidez.

Prozesu hori aurrera eramateko, honako hauek azalduko ditugu ondoren:

- ✓ Aurrez aurreko jardueren kronograma.
- ✓ Jardueren edukia.

EGINKIZUNEN KRONOGRAMA

AURREZ AURREKO JARDUERAK	EGUNA ASTEAZKENA 09-09; 14:00-18:00 OSTEGUNA 09-10; 9:00-13:00 ASTELEHENA 10-5; 14:00-18:00 ASTELEHENA 11-2; 14:00-18:00 ASTELEHENA 11-30; 14:00-16:00 ASTELEHENA 01-25. 14:00-16:00	TOKIA UPV/EHU
PRACTICUMA AURKEZTEA ETA KOKATZEA.	Irailak 09, Asteazkena. Arratsaldez	
1. 2020-21ko Practicumean parte hartuko duten zentroak aurkeztea; Practicumean egin behar dituzten administrazio urratsak azaltzea. Jarraipen lan taldeak osatzea.	14:00-15:00	ARETO NAGUSIA
2.- Arlo desberdinen jardura adierazgarri batzuen azalpena, antropologia aplikatuari begira.	15:00-16:00	
ATSEDENA	16:00-16:30	
1. <i>Jardura. Norbanako proiektuaren hasierako garapena.</i> 2. <i>Jardura. Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diseinua.</i>	16:30-18:00	GELAK: Arrieta: 0.2 Ruiz: 0.3 Hernández: 1.4 Pérez: 2.3 Uhartea: 2.4 Urquijo: 2.5
EGINKIZUNAK, GAITASUNAK ETA PROFILAK: MAHAI-INGURUA	Irailak 10, Osteguna. goizez	ARETO NAGUSIA
2. Gipuzkoako campuseko Enplegu gunearen eta Entreprenari programaren aurkezpena. Eztabaida: Eta Graduaren ondoren, zer?	09:00-10:30	
ATSEDENA	10:30-11:00	
3. <i>Jardura.- CV bateko eta bere aurkezpen-gutunetako lanketa.</i> 4. <i>Jardura.- Lan ekintzailearen taldeak sortu.</i>	11:00-13:00	Informatika gela 3
JARRAIPEN MINTEGIA (I)	Urriak 5 Astelehena. Arratsaldez.	GELAK: Arrieta: 0.2
4. Ikasleen proiektu eta jardura planen aurkezpena.	14:00-15:30	Ruiz: 0.3

5. jarduera. Norbanako proiektuen garapena		Hernández: 1.4 Pérez: 2.3 Uhart: 2.4 Urquijo: 2.5
ATSEDENA	15:30-15:45	
6.jarduera. Afera etikoak eta gizarte antropologiaren deontologia profesionala.	15:45-16:30	
7. jarduera- Ikasle bakoitzak bere praktika arloaren artikulua bat aurkeztuko du	16:30-18:00	
JARRAIPEN MINTEGIA (II)	Azaroak 2 Astelehena. Arratsaldez.	Liburutegia
8. jarduera- Praktiken eremuari buruzko erreferentzia bibliografikoak bilatzea eta kudeatzea	14:00-18:00	
JARRAIPEN MINTEGIA (III)	Azaroak 30, Astelehena. Arratsaldez	GELAK: Arrieta: 0.2 Ruiz: 0.3 Hernández: 1.4 Pérez: 2.3 Uhart: 2.4 Urquijo: 2.5
6.- Txostena: helburuak, zalantzak.	14:00-16:00	
3./4. MAILEN ARTEKO AURKEZPEN BILERA	Urtarrilak 25, Astelehena. Arratsaldez	GELA: 1.7
7.-Ikasleek Practicumaren esperientziak aurkeztuko dizkiete 3. kurtsoan dauden antropologia ikasleei.	14:00-16:00	
JARDUEREN ZERRENDA		
1. jarduera . Norbanako proiektuaren hasierako diseinua.		Irailak 09, asteazkena, 16:30-18:00
2. jarduera. Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diseinua eta antzezipena		Irailak 09, asteazkena, 16:30-18:00
3.jarduera. CV bateko eta bere aurkezpen-gutunetako lanketa.		Irailak 10, osteguna, 11:00-13:00
4.jarduera. Lan ekintzailearen taldeak sortu.		Irailak 10, osteguna, 11:00-13:00
5.jarduera. Norbanako proiektuaren garapena.		Urriak 2, astelehena, 14:00-15:30
6.jarduera. Afera etikoak eta gizarte antropologiaren deontologia profesionala.		Urriak 2, astelehena, 15:45-16:30
7. jarduera. Tutorearekin adostutako artikulua baten irakurketa eta iruzkina, bakoitzak bere praktiketako arloari buruzkoa.		Urriak 2, astelehena, 16:30-18:00

8. jarduera. Praktiken eremuari buruzko erreferentzia bibliografikoak bilatzea eta kudeatzea	Azaroak 2, 14:00-18:00
Gida eta beste material batzuen irakurketa Practicum dagozkion kudeaketak burutzeko.	Norbanako lana

1. JARDUERA : Norbanako proiektuaren hasierako diseinua.
HELBURUAK:
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gizarte Antropologiako praktiken zerbitzuak (zentroak) kokatzea bertako egituraren maparen bidez, bere organigrama, lan arloak eta zereginak barne. ✓ Zentroak betetzen dituen zereginen artean, hausnartu zeintzuk egin zenitzakete eta norbanako proiektua sortu. ✓ Irudikatu profil profesionala eta bakoitzak dituen itxaropenak adierazi, bai pertsonal bai ikaste akademikoaren arloan.
METODOLOGÍA
Banakako lana, eta ondoren taldean adierazi .
<ol style="list-style-type: none"> 1. Norbanako proiektua diseinatu. 2. Itxaropenen zerrenda 3. Batera jarri

2. JARDUERA: Aurkezpen profesionalaren diseinua
HELBURUA:
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diskurtsoa sortu
METODOLOGIA
Taldeka eta banaka.
<ol style="list-style-type: none"> 1. Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diseinua prestatu. 2. Aurkezpen profesionalaren irakurketa.

3. JARDUERA : CV bateko eta bere aurkezpen-gutunetako lanketa.
HELBURUA:
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Bakoitzaren CV diseinatu eta aurkezpen-gutun desberdinak, lan eremu bakoitzari egokituta, prestatzea.
METODOLOGÍA

Banakako lana .

1. CV lantzea, Gipuzkoako campuseko Enplegu Gunearen aurkezpenean jasotako jarraibideen arabera.
2. Eremu laboral desberdinak definitu eta haientzat aurkezpen-gutunak landu, Gipuzkoako campuseko Enplegu Gunearen aurkezpenean jasotako jarraibideen arabera.

4.JARDUERA : Lan ekintzailearen taldeak sortu.

HELBURUA:

- ✓ Lantalde ekintzaileak diseinatu, helburu laboral deberdinekin.

METODOLOGÍA

Talde-lana.

1. Lantalde ekintzaileak sortu, helburu laboral desbeninekin, Entreprenari programaren aurkezpenean jasotako jarraibideen arabera.
2. Kronograma egin, proiektuaren faseak eta betetzeko eginkizunak definituz.

5.JARDUERA : Norbanako proiektuaren garapena.

HELBURUA:

- ✓ Praktiketako norbanako proiektuaren hasierako diseinua garatzea eta hobetzea.

METODOLOGÍA

Taldean adierazi eta ondoren banakako lana .

1. Praktiketako norbanako proiektuaren hasierako diseinuan beharrezko aldaketak egin, proiektuaren aukerak eta mugak hausnartuz, zentroko instruktorearen ekarpenen arabera eta norbanakoaren pertzepzioen arabera.
2. Kronograma egin, proiektuaren faseak eta betetzeko eginkizunak definituz.

6.JARDUERA : Afera etikoak eta gizarte antropologiaren deontologia profesionala.

HELBURUA: Gizarte

- ✓ Gizarte Antropologiaren afera etikoak eta deontologia profesionala ezagutu.

METODOLOGÍA

Banakako lana eta ondoren taldean adierazi.

- 1.- FAAEEK adostu zuen orientazio deontologikoa irakurri eta azaldu.
- 2.- Bateratze-lana eta ebaluaketa.

7.JARDUERA : Artikulu baten iruzkina.**HELBURUA:**

✓ Antropologia aplikatuaren ezagutza zabaldu, bakoitzak bere arloan

METODOLOGÍA

Banakako lana eta ondoren taldean adierazi.

- 1.- Tutorearekin adostutako artikulu bat irakurri eta iruzkina idatzi
- 2.- Iruzkina aurkezpena taldean.

8.JARDUERA : Praktiken eremuari buruzko erreferentzia bibliografikoak bilatzea eta kudeatzea**HELBURUA:**

✓ Antropologia aplikatuaren ezagutza zabaldu, bakoitzak bere arloan

METODOLOGÍA

UPV/EHUko Unibertsitate-Liburutegiaren prestakuntza-ikastaroa

- 1.- Datu-base espezializatuako informazioa bilatzea, antolatzea eta ebaluatzea
- 2.- Bibliografia gestorearen erabilera

a. II. FASEA: (17 kreditu ECTS = 425 ordu: 340 aurrez aurrekoak, eta 85 bestelakoak).

Ikasleei esleitu zaizkien zentro eta zerbitzuetan egingo da irailaren 14tik abenduaren 18ra. Banaka eta denon artean gogoeta egingo dugu praktika aztertzeko (beste profesional batzuen laguntzarekin), parte-hartzaile "behatzaile" papera izanik praktiketako zentroan eta talde bateko kide izanik Fakultatean.

I. Faseko lanetik eta fase horretan eraiki/garaturako ikaskuntza eta tresnetatik (batik bat "Egunekoa") abiatuta, Fakultateak bidali duen zentro/zerbitzuan egongo da ikasle bakoitza. Honako hauei buruzko informazioa jasoko du bertan:

Zentroa zein esparru soziokulturaletan dagoen. Testuinguru horretan zein biztanleriari zuzendua den esku-hartzea. Eskaintzen/eskatzen diren zerbitzuak/programak. Zein beharrei erantzuten dien. Profesional taldea.

Profesionalak zein eginkizun dituen gizarteko jarduera arlo horretan. Eguneroko lanean erabiltzen dituen metodologia, estrategiak eta baliabideak.

Profesionalak zein arazo praktikori egin behar dien aurre. Haren bizipen pertsonala.

Fakultatean egingo diren Jarraipen Batzordeetan ere (talde txikietan eta HEFAko tutoreak lagunduta) egiaztatu eta hausnartu egingo da informazio hau.

TXOSTENA

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko Azken Memoria egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan jardun diren azalduko eta analizatuko dute.

Honako estilo hau erabiliko da: tipografia: Times New Roman edo Arial 12; lerrotartea: 1,5; luzera: 15 orr. gehienez.

Txosten horretan hainbat alderdi landuko dira, hala nola:

1. Ikaslearen datu pertsonalak (portadan)
2. Praktiketako zentroko testuinguruaren identifikazio eta analista (3 orr.)
 - Testuinguru orokorra: identifikazio datuak, kokalekua, zentro mota, zein erakunderen menpe dagoen, ekonomia-erregimen eta zentroaren jardura arloa erregulatzen duen araudia.
 - Zentroa kokatuta dagoen esparru soziokulturala. Zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuak, proiektuak eta programak, ezaugarriak, etab.
 - Zentroaren antolakuntza testuinguru. Zuzendaritza eta kudeaketa organoa. Lantaldea: profesionalak, funtzioak, lan metodologia. Garatzen diren sareak.
 - Zentroaren beharren identifikatzea eta testuinguru jakin batean txertatzea profil profesionalari dagozkion gaitasunak erantsiz.
3. Praktika prozesua eta norbanako proiektua (8 orr.)
 - Praktika programaren diseinua: helburuak, metodologia, jarduerak eta erantzukizun maila.
 - Jardura arloak, estrategiak eta baliabideak.
 - Dedikazioa eta bere gain hartu dituen eginkizunak
4. Eginiko lanaren azterketa eta hausnarketa pertsonala (3 orr.)
 - Prestakuntza-ibilbidearen azterketa eta Prestakuntza Proiektuari buruzko balioespena: ikaskuntzaren emaitzak.
 - Gizarte Antropologiako profil profesionala: heziketa akademiko-zientifikoari buruzko gogoeta orokorra, rol profesionalari ematen zaizkion funtzioak, trebetasunak eta jarrera pertsonalak. Autopertzepzio profesionala. Lanbide barruko eta lanbide arteko harremanen esparrua.
 - Practicumeko prestakuntza ibilbidearen analisisa eta ikaskuntzarako ekarpenak mintegietan egindako lanaren bidez.
 - Faktore positiboak eta hobe daitekeen elementuak.

5. Practicumaren ebaluaketa orokorra ikaslearen bizipen pertsonalatik (1 orr.)

- Practicumeko prozesuan zehar gogoeta bultzatzeko eta azken txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak bere esperientziari buruzko oharrak idatziko ditu eguneroko batean.

7. PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

Bi atal handi hartuko dira kontuan Practicumaren ebaluazioa egiteko: Fakultatean eginiko lana jasoko da lehenbizikoan, eta praktiketako zentroan egindakoa bigarrenean. Bi atal horiek gainditu beharko dira Practicuma gainditzeko.

a. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

Fakultateko tutoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzeko edo baloratzeko garaian:

- Fakultatean antolatutako jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joan den eta zer-nolako parte hartzea izan duen, jarduera guztiak betez. **Puntu bat.**
- Practicumaren Azken Memoria, **3 puntu**: ebaluazio irizpideak
 - Memoriaren irizpideetara eta egiturara egokitzea: argitasuna eta koherentzia datuak aurkeztean. Unibertsitateko eskakizun maila beteko du dokumentuaren erredakzioak.
 - Zehaztapena, zorrotasuna eta argitasuna dokumentuaren azalpenean eta argudioak ematean. Lanbideko berezko hiztegia behar bezala erabiltzea.
 - Eginiko praktiken inguruko azterketan eta gogoetan sakontzea.
 - Garatutako lan arloan Gizarte Antropologiako profesionalaren eginkizunekiko egokitzapena eta konpromisoa. Profil profesionalaren azterketa eta hausnarketa karreran zehar landutako ikasketa-zientzia prestakuntzaren esparruan.
- Gogoeta egunkaria. **Puntu bat.**
-

b. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA

Practicuma amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori alde zurretik jasoko du, eta bete ondoren, Fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

Praktiketako zentroko instruktoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian:

- Aldez aurretik hitzartutako egutegiak eta ordutegiak bete dituen.
- Bere zereginak bete dituen, halakotzat hartuko dira dedikazioa, erakutsitako gaitasuna, interesa eta jarrera arduratsu eta burutsua.
- Talde profesionalen esparruan izandako elkarlana, ekimenerako gaitasuna.
- Ebaluazio orria betetzea.

Honako hauek jasoko dira atal honetan:

- i. Praktiketako zentroan prestatzen ari den Gizarte Antropologo gisa izandako esperientziaren inguruko gogoeta.

- ii. Fakultateko lan saioetan izandako parte hartzearen balorazioa.
- iii. Memoria prestatzeko prozesuaren inguruko azterketa eta gogoeta, faseetako bakoitzean.
- iv. Practicumen aldi honetako ikaskuntza esanguratsuenen sintesia.
- v. Eranskinak: Egunkaria/Egunkariaren azterketa; dokumentu erreferentziak, beste ...